

BADUZU ZER ESANA

**BILBOKO
GAZTE**

**PANELA
JOVEN**

2024

TU OPINIÓN SUMA

Memoria



BADUZU ZER ESANA

**BILBOKO
GAZTE
PANELA
JOVEN
2024**

TU OPINIÓN SUMA

Bilboko Gazte Panela parte-hartze bidezko prozesua da eta harreman-espazio berri bat ireki du Bilboko Udalaren eta 18 eta 30 urte bitarteko gazteen artean.

Helburu hauek ditu:

- Gazteen parte-hartzea sustatzea Gazteen Tokiko Agendaren diseinuan.
- Udalaren funtzionamendua eta jarduera ezagutaraztea.
- Bilboko gazteen interesak eta kezak identifikatzea.

2024an bigarren edizioa egin da.

BIDEOA:
BILBOKO GAZTE
PANELA 2024

AURRERA



BILBOKO
GAZTE
PANELA
JOVEN
2024

BADUZU ZER ESANA

TU OPINIÓN SUMA

EDUKIAK

- 2024ko Bilboko Gazte Panelaren garapena: Saioak eta proiektukako lana
 - Saioak
 - Proiektukako lana: Motibazioa eta hautemandako beharrak, proba pilotuak eta azken proposamenak
- Udalak azken proposamenekin daukan konpromisoa
- 2024ko edizioa ebaluatzeko eta Bilboko Gazte Panelaren aurreikusitako hirugarren edizioa diseinatzeko 2024ko Talde Eragilea

2024KO BILBOKO GAZTE PANELAREN GARAPENA. PROIEKTUKAKO LANA

SAIOAK

- Guztira, taldeko 5 saio egin ziren La Perrera eraikinean (Sabino Arana, 50, Bilbo) eta horietako bakoitzean hainbat alderdi landu ziren.
- Tailerrak emateko eta saioetako batzuk dinamizatzeko laguntza teknikoa izan zen.
- Panelistek eurek aukeratu dituzten proiektuak landu dituzte, eremu hauei lotuta:

- Jasangarritasun soziala
- Ingurumen-jasangarritasuna
- Gazteentzako programazioa
- Udal komunikazioa



PROIEKTUKAKO LANA

Lau taldeak eratu ondoren, bakoitza lau gaietako bati lotuta, talde bakoitzak proiektu bat diseinatu, planifikatu, gauzatu eta ebaluatu du, eta proba pilotuetan gauzatu du.

Irailean taldeek proba pilotuak egin zituzten, haien bideragarritasuna aztertzeko eta beren proiektuak 2025eko udal-programazioan sartu ahal izateko. Horretarako, azken txosten bat egin zuten Gazteria eta Kirol Sailari proposamenarekin batera aurkezteko.

2024KO BILBOKO GAZTE PANELAREN GARAPENA. PROIEKTUKAKO LANA

1. SAIOA: OTSAILA

- 2024ko Gazte Panelaren sarrera:
 - Zer da, zelan garatuko da, erabiliko diren baliabideak...
- Proiektuen gaien aurkezpena:
 - Gizarte-jasangarritasuna
 - Ingurumenaren arloko jasangarritasuna
 - Gazteentzako programazioa
 - Udal komunikazioa

2. SAIOA: MARTXOA

- Parte-hartze bidezko aurrekontuei buruzko informazio-saioa.
- Proiektuak lurreratzeko moduari buruzko aurkezpena.
- Talde bakoitzaren aurkezpena, proiektuaren lehen ideiak azalduz.

3. SAIOA: EKAINA

- Informazio-saioa: UPV/EHuko ikerketa-taldea, Bilboko biztanleriaren adin-tarte desberdinetan nahi gabeko bakardadeari buruzko azterlan bat egiteko, panelistei horren berri emateko eta ikerketarako baliagarriak izan daitezkeen iritziak eta esperientziak biltzeko.
- Talde bakoitzak bere proiektuetan egindako aurrerapenak aurkeztea, eta gainerako panelisten feedbacka bozketaren bidez.
- Uda aurretiko taldeen bilera, beren ideia garatzen jarraitzeko eta irailean proiektu pilotuen bidez gauzatu ahal izateko.

4. SAIOA: URRIA

- Informazio-saioa: EGKk (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua) "Gazteria eta Osasun Mentala" jardunaldietara gonbidatu zituen eta horien berri eman zien panelistei.
- Talde eragileak panelista boluntarioekin sortzeko proposamena, Gazteria eta Kirol Sailarekin batera 2024ko Gazte Panela ebaluatzeko, hurrengo edizioa diseinatzeko eta panelisten hautaketan parte hartzeko.
- Intereseko gaiei buruzko informazio-saio laburra: Gazte Enplegurako Planaren deialdia, gazteen ekintzailatzari buruzko jardunaldiak (GAZ Bilbao + EGK)...
- Talde bakoitzak garatutako proiektu pilotuari buruzko aurkezpena: kudeaketa, garapena, gauzatzea, ebaluazioa... Feedback gehiago.
- 2024ko Gazte Panelaren ebaluazioa prestatzea.

5. SAIOA: AZAROA

- Taldeek azken proposamena aurkeztea Gazteria eta Kirol Sailari, 2025eko Tokiko Gazteria Agendan sartzeko eta Gazteria eta Kirol Sailak proposamen bakoitza zelan aztertuko den azaltzeko hartutako konpromisoei buruzko feedbacka.
- Gazteria eta Kirol Sailak eta Talde Eragileak Bilboko Gazte Panel berriaren ebaluazioaren emaitzak eta diseinu-proposamena aurkeztea, ebaluazioaren alderdiak zehaztuta.

ATZERA

EDUKIEN
TAULARA
BUELTATU

2024KO BILBOKO GAZTE PANELAREN GARAPENA. PROIEKTUKAKO LANA

TALDEA: JASANGARRITASUN SOZIALA (4/1)

MOTIBAZIOA,
HAUTEMANDAKO
BEHARRA

- Bilboko gazteen osasun mentalari buruzko kezka.
- Osasun mentaleko arazoen inguruan dagoen estigma, laguntza eskatzeko zailtasuna.
- Terapia psikologikoa behar duten gazte guztiek ezin dute jaso.

AZKEN PROPOSAMENA

"Ongizaterako prebentzioa" antzerki sozialeko tailer bat programatzea astero.

- Saioen iraupena: ordu eta erdi.
- Aldia: 6-7 hilabete, eskola-egutegiarekin bat etorrita (urria - apirila/maiatza).

PROBA PILOTUA

ANTZERKI SOZIALEKO TAILER BI:
"ONGIZATERAKO PREBENTZIOA"

- HELBURUA: Antzerki-teknikak baliatzea Bilboko gazteei osasun mentalaren prebentzioa ikasteko tresnak emateko.
- ADINA: 18 eta 29 urte bitarteko gazteak.
- PARTE-HARTZAILEAK: 10-12 tailer bakoitzeko.



AURRERA

EDUKIEN
TAULARA
BUELTATU

2024KO BILBOKO GAZTE PANELAREN GARAPENA. PROIEKTUKAKO LANA

TALDEA: INGURUMEN - JASANGARRITASUNA (4/2)

MOTIBAZIOA,
HAUTEMANDAKO
BEHARRA

- Kezka Euskal Herriko jaietako portaera-ereduen inguruan: kontsumo- eta hondakinen ekoizpen-eredua oso kaltegarria da hiri-ingurunerako eta, oro har, biosferarako.
- Bilboko eremuko erakunde aktibisten artean proposamenak, proiektuak eta jarduerak trukatzeko guneak sortzearen garrantzia.
 - Sinergiak sortzea
 - Irtenbideak aurkitzea
 - Arazoari modu kolektiboan heltzea

PROBA
PILOTUA

HACKATON GAMIFIKATUA "CLEAN FEST BATERA"

HELBURUA: Bilboko gazte-elkarteen eta ekologisten arteko indarrak batzea eta kontzientziazioa eta sentsibilizazioa bilatzea, jaietan eta urian kaleko edanaren ondorioz sortzen diren hondakinen aurrean proposamen eta konponbide jasangarri eta berritzaileak formulatzea.

AZKEN
PROPOSAMENA

"Konekta Ideiak: Green Fest" proiektua

- Bilboko gazteak kontzientziazioa eta sentsibilizazioa, urian festa garbiak lortzeko.
- Gazteen aktibismoaren eta ekologistaren sarea indartzea.
- 18 eta 35 urte bitarteko gazteak eremu horretara hurbiltzera animatzea, esperientzia teoriko eta praktikoa batetik abiatuta, ekintzailatzaren aurreko urrats gisa.
- Gazteen ekimenak eta gazteen ekintzailatza babestea eremu horretan.
- Gazte-elkarteen eta Udalaren arteko lankidetzaren sustatzea.



AURRERA

ATZERA

EDUKIEN
TAULARA
BUELTATU

2024KO BILBOKO GAZTE PANELAREN GARAPENA. PROIEKTUKAKO LANA

TALDEA: GAZTEENTZAKO UDAL - PROGRAMAZIOA (4/3)

MOTIBAZIOA, HAUTEMANDAKO BEHARRA

- Kezka Bilboko gazteen artean nahi gabeko bakardadea gero eta handiagoa delako eta horrek eremu sozial eta emozionalean dituen ondorio negatiboak dauzkalako.
- Gizarte-konexioa (harreman esanguratsuak eraikitzeke), ongizate emozionalaren sustapena, baliabide komunitarioetarako sarbidea erraztea, parte-hartze aktiboa eta giro inklusibo eta askotarikoa sortzea sustatzen duten zerbitzuren baten falta.
- Esku-hartze eraginkorra, parekoen arteko interakzio soziala sustatuko duen eta hautemandako interesetara egokitutako aisia- eta jolas-jarduerak sustatuko dituen proiektu baten bidez.

AZKEN PROPOSAMENA

Gazteen Agendaren proiektua, Bilboko Gazte Panelaren etorkizuneko edizioetan garatzeko potentziala duen programa gisa.

- Proba pilotuak arrakasta erlatiboa izan arren, proiektuaren hasierako proposamena ez da bideragarria, haren ebaluazioa aztertu ondoren. Hala ere, gazteek hainbat motatako jarduerak egiteko interesa dutela ondorioztatu zuten.

PROBA PILOTUA

FOCUS GROUP

- HELBURUA- Bilbon bizi diren 20 gazte elkartzea, Udalak antolatutako gazte-agenda bat sortzea babestuko luketen jakiteko eta uriko jarduerai eta aisialdi-ohiturei buruz daukaten iritzia zein den jakiteko.
- HELBURUA - Udaleko Gazteria eta Kirol Sailak, EGKrekin (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua) eta elkarteekin batera, hilero agenda bat antolatzea, hautemandako beharrak asetzeko.



AURRERA

ATZERA

EDUKIEN
TAULARA
BUELTATU

2024KO BILBOKO GAZTE PANELAREN GARAPENA. PROIEKTUKAKO LANA

TALDEA: UDAL - KOMUNIKAZIOA (4/4)

MOTIBAZIOA,
HAUTEMANDAKO
BEHARRA

- Eraginkortasun txikia udalaren eta hiriko gazteen arteko komunikazioan.
- Urruntasun-sentimendua, gazteentzako informazio interesgarria helarazteko erabilitako bitartekoak direla-eta, informazioa azkar eta berehala kontsumitzen den une sozial batean.
- Gazteak ohituago daude tresna eta teknologia berriak erabiltzera, eta urrunago daude Interneteko komunikazio-modu tradizionalenetatik.

AZTERKETA

- Talde honek modu integralean lan egin zuen Gazteria eta Kirol Sailak gazteekin komunikatzeko dauzkan plataforma digitaletan.
- Ondorioztatu zuen komunikazioaren eraginkortasunik ezaren kausa nagusia BilbaoGazte webgunea ez eguneratzea izan litekeela, aurkezpenari eta sartzeko moduari dagokionez.

AZKEN PROPOSAMENA

Webguneko elementuen ordenari, atalen izenei eta erabiltzaileentzako informazio garrantzitsuenaren egoerari buruzko aldaketa batzuk beharrezkoak direla ondorioztatu zituzten. Hauek aurkeztu zituzten:

- Webgunea birmoldatzeko proposamena, "interfaze soil eta fresko" baten alde eginez: elementuen kolore- eta tamaina-kodeak, sekzio berriak ("Klik batera", "Chatbot"...), edukien zuhaitz berria, eta webguneko argitalpenak erregistratzeko, zatitzeko eta antolatzeeko tresnak erabiltzea.
- Komunikaziorako zenbait estrategia, egindako hobekuntzak (2023ko Gazte Panelaren lana kontuan hartuta) eta proposamen berriak zeintzuk diren adieraziz.

← ATZERA

EDUKIEN
TAULARA
BUELTATU

UDALAK AZKEN PROPOSAMENEKIN DAUKAN KONPROMISOA

2024ko Bilboko Gazte Paneleko taldeen proposamenetako bi txertatuko ditu bere programazioan 2025eko Tokiko Gazte Agendak:

- Gazteei zuzendutako tailerrak, antzerki-tekniken bidez emozioak kudeatzeko, La Perreran.
- Konekta Ideiak programaren beste deialdi bat, ingurumenari buruzkoa (sentsibilizazio-fasea tailerrekin eta proiektu-deialdiekin).



Era berean, Gazteria eta Kirol Sailak lanean jarraituko du gazteentzako programazio-taldeak eta udaleko komunikazio-taldeak identifikatutako beharrei erantzuteko, alderdi horiek kontuan hartuta hurrengo edizioetan garatuko diren proiektuetan.

**2024KO TALDE ERAGILEA, BILBOKO GAZTE PANELAREN EDIZIOA
EBALUATZEKO ETA AURREIKUSITAKO HIRUGARREN EDIZIOA DISEINATZEKO**



2024ko Bilboko Gazte Panelaren laugarren saioan panelistekin talde eragile bat sortzeko proposamena egin zen. Talde hori borondatezkoa izango litzateke eta Gazteria eta Kirol Sailarekin batera egingo luke lan, helburu hauekin:

- **Edizioaren ebaluazioa egitea.**
- **Ebaluazioa kontuan hartuta, hurrengo edizioaren diseinu-proposamena sortzea, azken saioan gainerako panelisten aurrean aurkezteko.**
- **25/26ko Bilboko Gazte Panelerako panelista berrien hautaketan parte hartzea.**

Azkenik, taldea 4 kidek osatu zuten eta aurreikusitako helburu guztiak betetzen lagundu du. Datorren edizioaren deialdiaren ondoren (25/26ko Bilboko Gazte Panela) parte-hartzaile berriak hautatzea falta da.

AMAIERA

**EDUKIEN
TAULARA
BUELTATU**

BILBOKO
GAZTE
PANELA
JOVEN
2024

BADUZU ZER ESANA

TU OPINIÓN SUMA

Memoria

